

Ehundu eta desehundu: ekintza eta aldarrikapena



Peneloperen mitoa eta ehun bat egitea abiapuntuztat hartuta, ehungintzaren munduan murgilduko gara, zeina tradizioz emakumeei egotzi zaien, eta haren balioa eta espresio-aukerak aldarrikatuko ditugu talde-ekintza baten bidez.

Helburuak

- Celia Eslavaren obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Ehungintza-lanei buruz ikertzea hainbat mailatan (teknikoa, sinbolikoa) eta hainbat testuingurutan (etxekoa, artistikoa, ekonomikoa).
- Ehun-gaiek eskaintzen dituzten aukerak lantzea ikuspegi garaikide eta feminista batetik.
- Genero-rolari buruz hausnartzea, ikuspegi kritikotik zalantzan jarriz.

Aipamenak

Nola egin ehungailu bat kartoiarekin: <https://www.youtube.com/watch?v=NqqbvelFu7M>
Peneloperen mitoari buruz: <https://es.wikipedia.org/wiki/Pen%C3%Aglope>

Ehun-arte: <https://elpais.com/icon-design/arte/2020-11-17/ni-blando-ni-domestico-como-el-arte-de-tejer-se-ha-utilizado-para-hacer-la-revolucion.html>

Maria Jimenez Moreno: <https://www.tresnaka.net/artistas/maria-jimenez-moreno>

Simone Moraes: <https://www.simonemoraes.net/floema1> ; <https://www.simonemoraes.net/no>

Ana Teixeira "Escuto histórias de amor | Listening to love stories": <https://www.anateixeira.com/trabalhos/para-que-algo-aconteca/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Hasteko, Peneloperen mitoa kontatuko diegu (ezaguna den zatia).

-Eta Penelope izan balitz bidaia luzea egitera joan zena eta bere senar Odiseo erresuman geratu zena, Peneloperen zain, ehuntzen eta egindako lana desegiten? Hipotesi horretatik, ikasleen erreakzioetatik eta horien zergatietatik abiatuta, genero bakoitzari tradizionalki esleitu zaizkion rol, zeregin eta funtzioei buruz hausnartu eta eztabaidatuko dugu: egungo eta hurbileko testuinguruetara ekarriko ditugu, zalantzan jarriz eta esleitutako eta hartutako rolaen ideia azpimarratuz.

2. Eztabaidatutakoa eta Peneloperen mitoa Celiaren obraren batekin uztartuko ditugu (De profesión mis labores, Hil-oihala, Ehundu/Desehundu). Bere praktikari dagozkion gaiak hausnartu eta partekatuko ditugu: materialak, teknikak eta prozedurak; asmoak eta interesak; balizko esanahiak; eta abar.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Ehungintza-lana ikertuko dugu etxeko testuinguruan eta/edo sozioekonomikoan. Honelako galderek balio digute: Nor arduratzen da etxean adabakitzeaz, josteaz, ehuntzeaz? Nork hartzen zuen ardura hori iraganean? Non eta nola ikasten zen lan horiek egiten? Nork egiten ditu gaur egun soinean daramatzagun arropak? Non, nola eta zein baldintzatan lan egiten dute pertsona horiek? Argazki, ohar, albiste eta abarren bidez jasoko dugu informazioa. Etxean edo ikasgelan egin beharreko lana.

2. Mapa bisual bat osatuko dugu bildutako informazioa antolatuz. Mairidire handi bat erabil dezakegu, eta kateorrazekin eta puntadekin informazio hori gehitu.

3. Aldi berean, oinarriko ehun bat nola sortzen den ikasiko dugu, kartoizko edo antzeko ehungailu bat erabiliz (ikus aipamenetan). Horren ordez, orratzak, artilea edo ehunak sortzeko beste teknikaren bat erabil dezakegu.

4. Beste artista batzuen lanak ikusi eta aztertuko ditugu, ehuntzea ekintza feminista eta aldarrikatzaile gisa azpimarratzen dutenenak. (Ikusi aipamenak)

5. Eztabaidatutakoari, ikertutakoari, ikasitakoari eta ehuntzeko ekintzari buruzko ekintza-performance kolektibo bat sortuko dugu. Horretarako, galdera hau botako dugu: Zer kontatu edo helarazi nahi diegu beste ikasleei ikasi dugunari buruz? Zer beste ekintza egin ditzakegu ehuntzen, josten edo lan errepikakor horiek egiten ditugun bitartean?

Beste ekintza horiek zerrendatu, ekintzarako balizko bideak erabaki, eta ekintza burutuko dugu. Ideia batzuk:

- Ehuntzen dugun bitartean (eskolan hasi dugun ehuna), ikertutakoari buruzko abesti asmatu bat kantatuko dugu.

- Guztion artean ehun bakarria ehunduko dugu eskuz esku, eta banan-banan, eztabaidatutakoari edo ikertutakoari buruzko galdera bat egingo du bakoitzak.

Ondorioak eta lerro irekiak

Zer beste modutan parteka dezakegu ikertutakoa, ikasitakoa, sortutakoa senideekin, ikaskideekin, etab.?

- Senide bati egindako ehuna oparituko diogu, mezu batekin.

- Gure mairidire-mapa eskolako toki nabarmen batean erakutsiko dugu.

- Egindako ehunekin kate bat sortuko dugu eta gure hausnarketak gehituko ditugu.

- Beste batzuk.